

INDEPENDENTISTAK

artzai onaren ardi beltzak

PARA LOS SECRETARIADOS DE LAS DIOCESIS VASCONGADAS

EL CRISTIANO NO PUEDE SER INDEPENDENTISTA

Los Secretariados diocesanos sociales de Bilbao, San Sebastián y Vitoria -no el de Pamplona- publicaron un documento poco antes del referendun del 25 de octubre. En él se pretende ofrecer una reflexión ética sobre los problemas implicados en el Estatuto, por encima de cualquier postura partidista.

Los autores de este trabajo ponen en cuestión la neutralidad del razonamiento ético. La postura política interfiere en la reflexión de la moral política más de la cuenta.

Más concretamente critican de forma severa la valoración pretendidamente ética de la opción independentista. La condena moral de esta opción política por el documento resulta grave para la Iglesia Vasca ¿Serían los independentistas cristianos de segunda clase, incómodos para la Iglesia oficial?. Reivindican el derecho del cristiano a defender la opción política independentista entre otras posibles. No hay motivaciones éticas que lo impidan.

Urriaren 25eko erreferenduma zela eta, Bilbo, Donosti eta Gazteizko Elizbarrutietako Gizarte arazoetarako Idazkaritzek gogoeta batzu argitaratu zituzten "Ante el Referendum sobre el Estatuto Vasco" izenburuz. Iruineko Elizbarrutiko Idazkaritzak ez du parterik hartu, bestetan egin ohi zuen bezala. Eliz Probintziarena "ad calendas graecas" azken juizioko biharamonerako gelditu ote da, bada? Erreferendun eguna igaro zen. Eta gisa horretako gertakizun politikoak berekin duen hurbileko interesik gabe, patxadaz, gogoeta leiala egiteko ordu egokian gaudela uste dugu. Dokumentu egileak berak aurreratu dira hori eskatzera: "Quienes disientan de su contenido harían un buen servicio a la sociedad contraponiendo sus razones a las nuestras" (Aipamenak erderaz egin behar, dokumentuaren autoreek euskara ez bait dute inonbait erabiltzeko aski din ikusi). Inork ez dauka, bada, gure etxeko teilatuari harrika ematen ari garen juzgu gaiztorik egin beharrik.

Aurrena Dokumentuari buruz ohar orokor batzu egingo ditugu. Gero bereziki independentismoaren balorazioaren kritikan saiatuko gara.

1.- ETIKA POLITIKA BIHURTZEN DENEAN

Hauteskundeen, Erreferendunaren eta antzeko gertakizun politikoaren aurrean Elizak hitzegiten duenean ez omen du politikaririk egiten. Partidismorik gabe mintzatu nahi izaten du. Eta gainera Elizaren izenean inongo alderdik ezin duela Ebanjelioaren

babesik bereganatu esan ohi du. Erizpide etiko batzu eskaintzen omen ditu bakarrik -horretarako eskubidea eta obligazioa du-elako- fededunen eta borondate oneko gizonen kontzientziak argitzeko. Ez omen du politikaririk egiten, etika baino.

Ezku artean darabilgun dokumentuak ere doinu ezagun hau kantatzen du. Erreferendun honetan eztabaidan dagoenaren balorazio etikoa egin nahi du.

¿"la autonomía reconocida por el Estatuto es un cauce ético suficiente para la realización de las personas que constituyen el pueblo vasco?. Se puede éticamente exigir un margen mayor de autogobierno que la autonomía para el País Vasco, si se quiere proteger y promover la libertad y los derechos de las personas que lo integran? (5 or.).

Eta geroxeago oraindik:

"Qué valor ético tienen el centralismo, la autonomía, la soberanía, la autodeterminación" (ibid.).

Gure lehenengo objeizio orokorra, balorazio etiko soila izan nahi duen gogoeta, politikak kutsatuta dagoela da.

Dokumentu honen autoreek badakite, noski, etika ez dela politika. Batetik bestera iristeko, bidea egin behar dela. "Una respuesta clara a estas cuestiones (éticas) es necesaria, aunque insuficiente, para adoptar una actitud ante el próximo referendun" (5 or.). Eta argiago oraindik: "La decisión personal ante el referendun no es a nuestro juicio, una deducción directa de los principios éticos inspirados en la Fe cristiana. Requiere además un análisis sociopolítico de la realidad del País Vasco" (19.or.). Badirudi, bada, etikatik politikara, bihurtzune hestuz, aldapa nekoso, eta

seinalatu gabeko mila bidegurutzek jositako bide luzea eginez joaten dela. Baina baieztapen horiek hitzezko kontzesioak dirudite. Pentsabide osoan etikatik politikarako nekeak ezkutuko laister bide arinetik ibiliaz gaintzitzen ote diren-edo susmoa sortzen zaizu.

Zail da, ordea, bide tranposo hori beti sekretuan gordetzea. Bapatean topatu duzun pasarte batek, pentsabide osoaren azpian ezkutaturik dagoena bistan jartzen dizu: Intentzio politikoak. Eta konturatzen zara gertakizun politikoaren aurreko gogoeta etikoak ez direla hain etiko; politikak eragiten diola. Pasarte hau adibidez: "Exis-

La "Iglesia" vasca enseña en vísperas del Referendum:

"Por lo demás, el análisis interno del principio de las nacionalidades nos demuestra su debilidad doctrinal"

La "Iglesia" vasca NO enseña en vísperas del Referendum:

Por lo demás, el análisis interno del principio estatutista de las Autonomías nos demuestra su debilidad doctrinal

ten serios motivos para rechazar éticamente y, en consecuencia, políticamente el independentismo estricto" (15.or.). Aitortzen ez bada eta propio ukatzen bada ere, presupostu politikoak bere burua neutralizatzen daukan pentsabide etikoren hasieran, bitartean eta bukaeran dago. Gure dokumentuan erabili den metodo-

logiak berak garbi erakusten du hori. Aurreko pasartea itzulipurdikatu eta honela irakurrita ere, ez litzateke batere gezurra izango: "Existen serios motivos para rechazar políticamente y, en consecuencia, éticamente el independentismo estricto".

Eta hau arrisksua da. Etika politikaren morroi humila bilakatzen delako. Eta politika agintea da; boterea. Horixe da Elizari gerta dakiokkeen gauzarik okerretakoa; agintari eta boteretsuei agurka eta erreberentzia mintzatzea. Mundu honetako jauntxoan zerbitzutan pentsatzea Ideologia bihurtzea.

Politikak etikoa izan behar badu ere, etika ez da politika, eragin politikorik izan arren. Juzgu etikoak emanez egin nahi den politika salatu nahi dugu hemen. Inongo aukera politikoak ez du berez etikaren eksklusibarik.

2.— DOKUMENTUAREN TESI POLITIKOA

"¿Se puede éticamente exigir un margen mayor de autogobierno que la autonomía para el País Vasco?" galdetu dutenek ez dute zinezko galderarik egin. Galdera hori metodikoa da soilik. Formula autonomikoa defenditzen hasteko galdera rituala.

Estatu autonomikoaren formula politikoa da, etika arropaz maskaratu nahi dena. Argi! Ez formula hori bakarrik. Zentralismoaren eta independentismoaren arteko zerbait izanez gero, federalismoa adibidez, edozein formula izan zitekeen egokia politika eta etikaren aldetik. Baina konkretuki, Estatu honetan formula autonomikoa eta ez federalista planteatu denez, horixe da nonbait aukera politiko egoki jator bakarra une honetan. "Bakarrarena" salbu, eritzi politiko errespetagarri eta serioa derizkiogu horri. Besterik da, ordea, etika ikuspeltik ere aukera jator bakarra hori dela frogatu nahi denean.

Zentralismoaren kritikak ez die burukomin haundirik eman. "Frente a todas las formas de centralismo, la ética política de inspiración cristiana afirma que la auto-

independentismoa ukatzen eta kondenatzen. Eta oso modu txarrean, tranpaz baliatuz, egin ere. Merezi du honek piska bat jorratzea.


3.— INDEPENDENTISMOA BEKATU ?

Independentismoaz dioten guztia aztertu ondoren ateratzen den konklusioa da, independentismoa gaur eta hemen etikoki baztertu egin behar dela. Objektiboki bekatu dela independentismoa. Beraz objektiboki formula politiko independentista defenditzerik ez daukala kristauak.

Horixe frogatzen gogor saiatu arren, ez dutela inolaz ere konbentzitzen aitortu behar. Ezin dugu hemen argumentu bakoitzaren kritikarik luze zabalean egin. Baina ondoko hau esan daiteke gutxienik, doku-

lako. Autodeterminazio-eskubidea bait da herri orori aitortzen zaiona, ez formula independentistaren derrigorrezkotasuna. Badira, Euskal Herrian bertan ere, autodeterminatzeko eskubide ukaezina ("estricto"?), duela defenditu arren, independentista ez direnak. Horregatik, autodeterminatzeko eskubidearen defendatzailea, independentista, deferalista, autonomista edo beste zerbait izan daiteke, demokrata, edo ez demokrata izan daiteke, biolentziaren bidea ameti edo uka dezake. Dokumentu-egileek, beren neurriko etsaia fabrikatu ondoren, harrekin borrokan egin dute. Aisa irabazi dute orduan!

Ez dator, bada, ezertara independentismo "hertsia" ukatu eta "la aspiración a la soberanía no pasa de ser una aspiración política discutible" baieztatzea. Inde-



mentuaren pentsabidearen puntu nagusiei segidan eta banan helduz:

A) Independentismo "hertsia" eta "zabala".

Arrazoipide guztiaren azpian "inde-

pendentismo "hertsia" etika aldetik ukatzeko ahaleginok, independentismo politikoa kondenatzeko era disimulatua dirudite. Susmo honetan konfirmatzen gaitu, independentismo "hertsia" definizioan biolentziari era demokrazi faltari halako tokia eman ondoren, haren kontrako pentsabide osoan, biolentziaren arazorik aipatu ere ez dela espreski egiten oharreaz.

B) Independentismoa historiaren kontra?

Independentismoak historiaren kontra doazela, herrien arteko dependentzia sarea hestutuz doalako, eta independentziak kontenedorik ez duelako, eta elkartzan ari direlako, eta bloke politikoen lotura dagoelako etab. guzti hori aspaldiko musika zahar ezaguna da. Topikoa. Baina Estatuetako ejertzitoak kontenedorik ez duen zerbaiten alde ari al dira, bada, tankeak, Mirageak eta gizonak alferrikaltzen? Hutsaren urrengo den zerbaiterik egin eta egiten al da hainbeste gerra?

Ideal etikoa herriak elkar besarkatzea, bakoitza bere oskoletik ateratzea, eta borondatezko interdependentzia sortzea omen da. Hala izango da, nahi bada. Baina mundu ideal baten aitzakitan, borroka errealean legeak herri txikiak ezkatzea, truko merkea besterik ez da, Estatu soberano eta arroputzen atzaparretara minoria

Argumentum cornutum:

"Existen serios motivos para rechazar éticamente y en consecuencia políticamente el independentismo estricto.

A) Un pueblo o una nacionalidad puede alcanzar sus fines específicos en un estado nacional o en un estado plurinacional. No hay una relación NECESARIA entre libertad nacional y estado nacional soberano.

Ni puede decirse que una nación en un estado plurinacional sea NECESARIAMENTE una nación reprimida...

Ahora bien, el derecho estricto es un medio necesario (?) para conseguir unos fines fundamentales, pero la soberanía estatal no tiene esa condición de medio necesario. Por tanto, la aspiración a la soberanía no pasa de ser una aspiración política discutible, pero que ha de tener cabida DENTRO DE LA LEGALIDAD de un Estado democrático, cuando se defiende por procedimientos igualmente democráticos".

nomía es un derecho cierto de los pueblos" (13.or.) Bale! Horrelakorik konkretuki eta hemen Eliza jerarkikoari entzuteko urte luze askoak joan zaizkigun arren!

Burukominak eta tripakoak ere ematen dizkiena formula independentista da. Eta hor egingo dituzte ahalegin guztiak eta bi,

pendentismo "estricto" (hertsia) eta "amplio" (zabala) kontzeptuen bereizkuntza dago. Definizioz lehenengoa ez dela demokratikoa, eta bigarrena bai, deklaratzen da. Beraz bertan behera kondanagarria da hura. Tranpa hori maltzurragoa da oraindik, kontzeptu nahasketa dagoe-

ukatuak gor-mutu, besamotz eta bi hankak lotuta botatzeko. Herri haundiek eta honen ideologo profeta argiek herri txiki zapaldui egindako prediku hauek gainera truko zaharrak dira. Baina nonbait historia zentzu historikoaren aurka ibiltzen ikasita dago honuzkero. ONU-n dauden Estaturik gehien gehienak sermoi progre horiek entzun eta gero sartu dira bertan behintzat.

C) Independentismoa pertsonalismoaren kontra?

Ez dago pertsonalismoaren ekarria ukatu beharrik batere, errealitate politikoaren balorapen etikoa egiteko zentratu muga eta oztopo duen aitortzeko. Kriterio horren izenean, batez ere, dokumentuak formulatzen duen eran, edozein sistema politiko pikotara bota daiteke.

Baina iruditzen zaigu, kritika pertsonalistak egokiago daudela gaurko Estatu independenteen txobinismoa eta nazionalismoari egurra emateko, oraindik asmotan dagoen independentismoari baino.

"Pero Las personas humanas concretas no son siempre más libres, ni afirman mejor su perfección integral por el hecho de formar parte de un estado nacional jurídicamente soberano e independiente" (16.or.).

Zer esan horrelakorik entzutean? Hitler-en eta Stalin-en kontzentrapen zelaietan ere oso pertsona osoak **batzutan** izaten zirela (Maximiliano Kolbe etab.); eta Estatu autonomiko eta federalistetan ere **ez direla beti** pertsonak libreago izaten, eta oso gizon alprojak eta gaiztoak aurkitzen direla **batzutan** (!?). Baina zoaz honelako metro politikoekin errealitate politikoaren ozeanoa neurtzen.

D) Autodeterminazioa solidaritatearen kontra?

Eztabaidan sartuz gero, kontrarioaren printzipioak ad absurdum erabiltzea ez dago gaizki, ondo eginez gero. Bestela alferrikako logomakia izango da. Gure kasuan bezala. Autodeterminazio-printzipioarekin ezkeneraino joanez gero, gizartearen desintegrazioa joango omen ginateke. Eta hori absurdoa da. Baina absurdoago da autodeterminazio-eskubidearen sujeta edozein kolektibitate eta talde dela pentsatzea; sujeta horrek errealismo zentzurik ez duela uste izatea; eta printzipio hori solidaritate printzipioarekin uztartu ezina dela juzgatzea. Eta horixe pentsatzen dute, horixe uste dute, horrelaxe juzgatzen dute nonbait dokumentuaren idazleek.

E) Nafarroa independentistaren logika faltan

Borrokalaria pijo eta iaioak dira dokumentuaren egileak, Orain ad hominem taktikaz atakutzen dute. Autodeterminazio-printzipioa denon eskubidea bada, zergatik, orduan Nafarroari ukatzen diote? Baina satisfazio-irriparririk egin aurretik, hobe zuten, horretarako aipatzen diren arrazoiak gogoratzea, komentitzen badute eta ez

badute: Autodeterminatzeko eskubidea nazio edo herriei eta ez hauen zatiei dago kiela; bestela, Nafarroan eraman den kontzientzi gabetze nazionalaren politika zilegiztatzea litzatekeela; Nafarroari Euskal Herriaren baitan autodeterminatzea tokatzen zaiola etab. Eta aukera politiko eta partidista ororen gainetik dagoen etika inpartzial ondratuak, halako dejada zitala etsaiari bota era gero, beste aldekoen logika falta hau salatzea ere espero zitekeen: Nafarroa-

Extraños modos de neutralismo:

"La persona humana es más libre y lleva una vida más digna allí donde encuentra una posibilidad efectiva de disfrutar de todos sus derechos y esto puede lograrse A VECES mejor en un estado plurinacional".

Por ejemplo en la URSS.



ri Euskal Herriari buruz autodeterminatzeko eskubidea aitortzen diotenean, nolatan Espainiari eta Frantziari buruz autodeterminatzea ukatzen diote Euskal Herriari.

F) "Independentismo" zilegi bakarria

Errepresiopean dagoen herriarentzat bakarrik litzateke zilegi independentista izatea gure dokumentuarentzat.

"Un pueblo o nacionalidad cuya identidad fuese conculcada y cuya autonomía

onartzen duten beren arrazoipide guztian, ez dela hori Euskal Herriaren kaso.

Konklusioa hau da dokumentuarentzat: Euskal Herriaren independentismoa, etikoki, bekatu objetiboa da. Eta Euskal Herria ez da "un pueblo o nacionalidad cuya identidad ha sido conculcada y cuya autonomía ha sido suprimida o indebidamente recortada". Hasierako galdera haiei erantzunez, Euskal Herriko pertsonen errealizaziorako nahikoa da Estatutua. Eta Euskal Herriak autogobernatzeko ez dauka autonomia baino gehiago etikoki eskatzerik.

Extraños conceptos/definiciones de los Secretariados Sociales Diocesanos:

"Independentismo estricto es una actitud política que considera la soberanía como un derecho estricto de cualquier pueblo o nacionalidad en cualquier circunstancia histórica.

Se diferencia del independentismo amplio que es una opinión política dispuesta a confrontarse democráticamente con otras opiniones políticas... cuya legitimidad reconoce. Rechaza, en consecuencia, el uso de medios violentos para conseguir su proyecto político".

fuese suprimida o indebidamente recortada tendría derecho a defender su libertad, dotándose de la organización política que garantizara la vigencia de tales valores al margen del Estado opresor. Esa reivindicación "independentista" sería legítima" (17.or.).

Baieztapen hauek ez omen dira politikoak, gainerik!

4. — "Separatista" izateko eskubidea

Dokumentuak "independentista" izateko eskubidea ukatzen dio euskaldun kristauari, independentismoari hainbeste erreparatu etiko jarriaz. Erreparatu haundiena oker ez bagaude, solidaritatearen balio etikoa nahiko ez sabaltzea da.

Gure eritziz, solidaritatearen balioa ez

Ez da erreza konprenitzea, tamaina honetako printzipiozko deklarazioa egin ondoren, zeinen errez ahaztu duten hori Euskal Herriaren kasoan. Eta zeinen arin aurrez

da formula autonomikoetan edo federalistetan bakarrik salbatzen. Soberano diren Estatuetan ere salba daiteke. Zein formula den egokiena salbatzeko herriaren nortasuna eta burujabetza batetik, herrien eta Estatuaren arteko solidaritatea bestetik, politikak erabaki behar du. Etikak ezin du balio horien inperatiboa begi bistan jarri besterik. Besterik, ez dago abstrazioaren errei-

torio politikoak ateratzeraino baloratu ere, eta herrien eta nazioen arteko elkartasun zale porrokatuengan, bi puska eginda dagoen herri baten kasorik, Euskal Herria-



La "Iglesia" no hace política, -solamente enseña, en vísperas del Referendum, que:

"La fórmula del Estado soberano y la pretensión del independentismo radical están HOY históricamente superados".

nuan eta historia errealetik kanpora balio etikoa nola politikara eraman behar den amets egin ondoren, beste analisirik gabe, bertan behera gaurko une historikora aplikatzerik.

Balio horiek ezin daitezkeela formula independentistaren barnean sal ezaten zaigunean, beraz, afirmazio politikoa egiten zaigu etikoaz gain, balorapen politikoa aurrez suposatzen da.

Gure ustez, gaurko Euskal Herriko gizonak, Euskal Elizako kristauak, balio etiko horien armonizazioa independentziaren formula politikoa bidez bilatzeko eskubide etiko osoa du; eta juridikoa ere behar luke izan. Etikaren izenean ezin zaio ate hori itxi. Ixtekoan arrazoi politikoengatik egingo zaio. Baina hor politikaren jokuan gaude.

rena bezalakorik, aipatu ere ez egitea nola konprenitu? Ez kontsiderazio etikorik ez politikorik merezi du arazo honek. Hutsune hain nabarmenaren aurrean, solidaritatearen kantuak sirena engainagarriaren abots zolia dirudi. Gaurko **Status quo** politikoak bere horretan onartzeko aitzakia. Gaurko mapa politikoa "naturala" balitz bezala; honen mugak esku misteriosoren batek marratu balitu bezala, gero aipatuko dugun testuan esanabartzen denez.

Desde cuándo es HOY? Recordamos:

1861: "Nadie puede suponer que es menos beneficioso para un bretón o un vasco de la Navarra francesa criarse en la corriente de ideas y sentimientos de un pueblo muy civilizado y cultivado -ser un miembro de la nacionalidad francesa, admitido en las mismas condiciones a disfrutar de los privilegios de la ciudadanía francesa, compartiendo las ventajas de la protección y de la dignidad y prestigio de la potencia francesa- que estar enterrados en sus propias rocas como una reliquia medio salvaje de los tiempos pasados, revolviéndose en su pequeña órbita mental, sin participación ni interés en el movimiento general del mundo" (J.S. Mill, *Considerations on Representative Government*, brillante teórico burgués).

1979: "El progreso político de la humanidad no exige hoy la multiplicación de Estados supuestamente soberanos e independientes, sino la limitación voluntaria de la soberanía aparente de los Estados aún considerados jurídicamente como soberanos..." (*Secretariados Sociales Diocesanos*, en vísperas del Referendum).

Recordamos:

Aproximadamente la mitad de los Estados europeos es independiente desde hace menos de 50 años.

Excluida China, más de la mitad de toda la población mundial vive en Estados que son independientes desde hace aproximadamente 30 años.

Sin embargo, "burgueses son ellos":

"La interpretación ilimitada o voluntaria del principio de autodeterminación tiene unos orígenes históricos e ideológicos burgueses" (*secretariados Sociales Diocesanos*).

5. — Solidaritatea aitzaki denean

Solidaritatearen balioa hainbeste baloratzan den dokumentuan, tranpazko on-

6. — Espaloi batetik bestekoei hitz egiten zaienean

Zentralismoari egiten zaion kritika ez dugu ahaztu nahi.

Baina hala ere, dokumentu honek

Estatutuaren aldekoen espaloitik kontrako espaloira oihukatutako sermoia dirudi. Eta gatazka politiko batetan oso arrisksua da hori. Estatuaren kontrako espaloitik beste aldera begiratu gero, oso bestelako pentsabide etikoa egingo litzateke: Estatuaren batasun hautsiez, sakratuak desmitifikatu eta desakralizatzen, ejertzitoaren irrazionaltasuna jorratzen, herri hautsi eta ukatuen eskubideak defenditzen, etab. gehiago saiatu litzateke. Bakea, nortasuna -kulturala, eta ekonomikoa eta politikoa- izateko herri baten eskubidearen preferentzia etikoki baloratuko litzateke.

Baina zoritxarrez Estatuaren eta nazioen norabidea ez du etikaren lemak gobernatzen, indarrarenak baino. Dokumentu hau indarra eskuetan dutenen arazoia ontzat emanaz hasitako gogoeta da. Estatu hauek inozentzia orbangabea jaio balira bezala, jatorrizko bekaturik ez balute bezala. Zentralismoaren zoroaren arriskua gaindituz gero, -erreibindikapen "independentistak" pizten dituelako da zoro- ondo legoke gaurko hemengo egoera. Honela batasunera deitzen dituen patua beteko da:

"Tan sólo una mutación cualitativa de ese modelo de Estado centralista permitirá hacer creíble y deseable la posibilidad de una empresa común a los diversos pueblos que están entrelazados por unos factores naturales (económicos, históricos, culturales) que parecen 'destinarles' -valga la expresión- a convivir políticamente dentro de un respeto mutuo" (17.or.).

BUKATZEKO

Badirudi Idazkaritzan idatzi hau gotzaiek Erreferenduma zela eta, lehen-txeago ateratakoa babestera datorrela. Gure ustez nahiko mesede kaskarra egiten dio. Eta ez genuke pentsatu nahi, gotzaiek esateko ausardirik izan ez zutena, hauek esan dutenik.

Kritikatu ditugun puntuak aski pisuak dira, dokumentu hau, bere alde on ukaezin eta guzti, batez ere gaurko euskal testuinguruan, arras negatibotzat eta txartzat jotzeko. Interbentzio negargarri bat gehiago euskal Elizaren beste hainbeste interbentzio negargarriaren artean.

Formula independentistaren kondena etiko-politiko grabea iruditzen zaigu euskal Elizarentzat. Euskal fededun independentista bigarren mailara errebajata gelditzen da.

Tankera honetako dokumentuak -gehiegi pentsatu gabe eginga ote dagoen uste nahi genuke- Euskal Eliza desprestijatzeko besterako ez dira. Jakitekoa litzateke Euskal Herriko gotzaiak konforme dauden ala ez testu honekin. Pastoraltzarako derrigorrezko ondorioak ditu arazo honek. Erreferenduma pasa da: zer egin behar du pastoraltzak abertzale independentista fededunekin? Independentistak artaldeko ardi beltzak ote dira, bada?

Geure aldetik euskaldun independentistak fededun logiko izateko eta Elizaren barnean baztertu gabe egoteko duen eskubide osoa aitortuz bukatu nahi genuke.

Paulo Agirrebaltzategi.
Joxe Azurmendi.
Manolo Pagola.